



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 13a

15. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-25/LEY-00015. Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-25/PRO-00020. Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-26/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osorik bete dezan Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren AR 144/2025 Akordioa. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (11. or.).

—11-26/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita datu-tratamenduko zentroyen inpaktuari buruzko analisi integrala egin dezan (ekonomikoa, laborala, energetikoa, hidrikoa nahiz ingurumenaren gainekoa), enpleguari eta lurralde-garapenari egiten dioten ekarpen errealaoren gaineko ebaluazio konparatua barne. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (12. or.).

—11-26/MOC-00023. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Ameriketako Estatu Batuetako arduradun politikoaren adierazpenak, eskurik ez sartzearen printzipioa urratzen dutenak, eta berretsi egiten baitu nazioarteko zuzenbidea, arauetan oinarritutako nazioarteko ordena eta herrien burujabetza errespetatuz egin behar dela Groenlandiaren estatus politikoari eragiten dion planteamendu oro. Irati Jiménez Aragón andreak aurkeztu du (13. or.).

—11-25/MOC-00159. Erabakia, zeinaren bidez gobernu zentrala premiatzen baita Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 4. artikulua (plangintza elektrikoa) alda dezan, lurraldearen araberrako sailkapena elementu objektiboa –eta erabakigarria– izan dadin egin beharreko plangintzetan. Osoko Bilkurak onetsi du (15. or.).

- 11-26/MOC-00014. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentua premiatzen baita Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariekin adostutako gutxieneko aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean. Osoko Bilkurak onetsi du (15. or.).
- 11-26/MOC-00015. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (16. or.).
- 11-26/MOC-00016. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernu premiatzen baita Eliza Katolikoaren immatrikulazioak ahalbidetu zituen estatu-araudia balioz gabetu dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (16. or.).
- 11-26/MOC-00018. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat babesten baitu pentsioen balioa handitze aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzen dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (17. or.).
- 11-26/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita etxegabetasunari erantzuteko politiken jarraipena egiteko koordinazio-esparru egonkor bat sor dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (18. or.).
- 11-26/MOC-00013. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita talentua erakarri eta atxikitze plan integral bat sustatu dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (18. or.).
- 11-26/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Gardentasunaren Atarian hilerio ezagutaraz ditzan Foruzangoak Nafarroan atxilotutakoen kopuruari eta jatorriari buruzko datuak. Osoko Bilkurak ezetsi du (19. or.).
- 11-26/MOC-00008. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen baita “Diagnostiko konplexuak dauzkaten familiei laguntza eta aholku integrala emateko figura” sor dezan. Osasun Batzordeak onetsi du (19. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- 11-26/PES-00030. Galdera, Osasunbidean naziokoak ez diren pertsonen egindako esku-hartze medikoen edo ebakuntzei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00031. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (21. or.).
- 11-26/PES-00032. Galdera, Miteco-k 2030erako plangintza elektrikoaren zirriborroa argitaratu ondoren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin izandako hartu-emanari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (21. or.).
- 11-26/PES-00033. Galdera, etxebizitza-ikuskaritzan plaza berriak sortzei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (22. or.).
- 11-26/PES-00034. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kirurgiarako robot bat lizitzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (23. or.).
- 11-26/PES-00035. Galdera, Lanbide Heziketako praktikei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (23. or.).
- 11-26/PES-00036. Galdera, Nafarroako Gobernuak TEDER-Tierra Estella Desarrollo Rural elkarteari emandako funts publikoen buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (24. or.).
- 11-26/PES-00037. Galdera, Corellako Alhama BHIko ikasleei eskainitako ereduari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (25. or.).
- 11-26/PES-00038. Galdera, Bidean-en anbulantziei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (25. or.).
- 11-26/PES-00039. Galdera, Baztan-Bidasoan Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (26. or.).
- 11-26/PES-00040. Galdera, Egitekoa den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazte aldera zerbitzuak indartzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (26. or.).
- 11-26/PES-00041. Galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren aurrerapenari eta planak Artistaren Estatutuaren garapenarekin duen loturari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (27. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-25/LEY-00015. Foru-lege proiektua, Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duena**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Foru-lege proiektu hori 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **1. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

##### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3.3 artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

3.3 artikulua: “Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) antolatzea eta dinamizatzea, jakintzaren sorrera, garapena, hedapena eta aprobetxamendua sustatzeko kalitate, berdintasun eta demokrazia parametroetan, bai eta jakintzaren ekoizpenean eta haren emaitzetan parte hartzea ere, Nafarroako sektore publikoarekiko, entitate sozialekiko eta sektore produktiboarekiko kooperazioa handituz”.

Zioak: Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) ez da antolatu soilik egin behar, dinamizatu ere egin behar da etengabe, eta, gainera, jakintzaren hedapena egin behar da.

### **2. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

##### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3.10 artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

3.10 artikulua: “Lankidetzaren sustatzea, elkarlan publiko-pribatua sendotzea eta ikerketako jakin-

tzaren transferentzia egiten laguntzea, Nafarroako I+G+b Sistematik (SINAI) sare produktibora, sare sozialera eta gizartera, oro har”.

Zioak: hori lortzeko, behar-beharrezkoa da elkarlan publiko-pribatua sendotzea, jakintza transferentzia hori lortzea izanik helburu nagusia.

### **3. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

##### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3.18 artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

3.18 artikulua: “Talentuaren sorrera, atxikipena eta itzulera erraztea behar diren neurriak hartuz honako arlo hauetan: laguntza logistikoa, ekin-tzailtza edo kontratazioaren sustapena”.

Zioak: talentuari buruz hitz egitean, hura itzularazteko lan egiteaz gainera, ezinbestekoa da hura Nafarroan sortzeko eta bertan atxikitzeko edo fidelizatzeke ere lan egitea.

### **4. ZUZENKETA**

#### **EH BILDU NAFARROA**

##### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, xede duena aldatzea Zientzia eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legearen 8.2 artikulua c) apartatua.

Proposatzen da 8.2 artikulua c) apartatua aldatzea. Testu hau izanen du:

“c) Berdintasunarena: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plan bat izatea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren IV. tituluaren III. kapituluaren ezarritako edukiarekin egina eta aplikatua, eta lan arloko legerian adierazitako moduan

negoziatua. Edonola ere, berdintasun planek eguneratuta egon beharko dute, adierazle espezifikoen bidezko jarraipena egin beharko zaie eta dagoen erregistroan erregistratuko edo gordeko dira. Era berean, jarduera protokolo bat egonen da, lan esparruan geratzen diren sexu askatasunaren eta osotasun moralaren kontrako indarkeria, delitu edo bestelako jokabide, sexu jazarpen edo sexu arrazoiengatiko jazarpenen kasuetarako”.

## 5. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, xede duena apartatu berri bat gehitzea Zientzia eta Teknologiari buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legearen 8.2 artikuluari.

Proposatzen da e) apartatu berri bat gehitzea 8.2 artikuluari:

“e) LGTBI+ gaiarena: LGTBI+ pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko neurrien eta baliabideen multzo planifikatu bat izatea, zeinek barne hartuko baitu LGTBI+ pertsonen kontrako jazarpen edo indarkeria kasuak artatzeko jarduera protokolo bat. Horretarako, negoziazio kolektiboaren bidez itundu eta langileen legezko ordezkaritzarekin adostuko dira neurriak, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legeak xedatzen duen eran”.

## 6. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12.1 artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

12.1 artikulua: “Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAL) exekuzioko eragileen koordinatzailea den eragilea arduratzen da sistemaren exekuzioko eragile guztien koordinazioaz, Nafarroan zientzia, teknologia eta enpresaren arteko erlazioa dinamizatzeaz eta Nafarroako gizartearen esparru guztietan zientzia, ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren hedapena egiteaz”.

Zioak: legearen beste artikulua batzuekin bat, koordinazioaz eta dinamizazioaz gain, hedapen lana ere sartu behar da SINALko exekuzioko eragileen koordinatzailearen lanen artean.

## 7. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12.4.h) artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

12.4.h) artikulua: “Nafarroako eragile, entitate publiko eta enpresen arteko elkarlaneko eta transferentziarako I+G+b proiektuak koordinatzea, eta elkarlan publiko-pribatua sendotzea horrela”.

Zioak: elkarlan publiko-pribatua sendotzea funtsezkoa da I+G+b proiektuen garapenean.

## 8. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, xede duena aldatzea Zientzia eta Teknologiari buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legearen 17.1 artikulua j) apartatua.

Proposatzen da 17.1 artikulua j) apartatua ordeztzea, eta honako hau jartzea haren ordez:

“j) Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeko eskubidea duen sindikatu bakoitzeko pertsona bat”.

## 9. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

17.1.j) artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

17.1.j) artikulua: “I+G+b arloko bi pertsona, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeko eskubidea duten sindikatuek adostasunez izendatuak”.

Zioak: ez da zuzena I+G+b sektoreaz hitz egitea, ez baita halakorik existitzen bere horretan; hori horrela, proposatzen dugu “I+G+b arloko” adierazpenarekin osatzea artikulua, izendatuko diren bi pertsona horien jatorria ongi zehazteko.

**10. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

21.1.ñ) artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

21.1.ñ) artikulua: “Talentua Nafarroako Foru Komunitatera erakartzeko eta bertan sortzeko eta fidelizatzeko neurriak, behar diren sistemak izanez honako arlo hauetan: laguntza logistikoa, ekintzailtza, proiektu berritzaileen finantzaketa, zerga pizgarriak eta kontrataziorako laguntza”.

Zioak: talentuari buruz hitz egitean, ezin dugu hura sortzeko beharra ahaztu. Gainera, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzen diren ekintzen artean proiektu berritzaileen finantzaketa eta zerga pizgarrien ezarpena sartzea, Nafarroa erakargarria izan dadin talentuaren alorrean.

**11. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa. 21 bis artikulua sortzen da: “Jakintza transferentzia”. Testu hau izanen du:

21 bis artikulua: “Jakintza transferentzia

1. Lehentasuna emanen zaio jakintza transferentziari; ildo horretan, erabakitze eta kudeaketa prozesuak arinagoak eta malguagoak izateko hobekuntzak eginen dira, elkarlan publiko-pribaturako mekanismoak sendotuko eta ezarriko dira eta berrikuntza enpresarialari lagunduko zaio lankidetzaren eta jakintza truke aktiboaren bidez.

2. Jakintza transferentziako sistema publikoa sendotuko da, eta, gainera, gizarte, ekonomia eta lurralde inpakturako duen ahalmenaren ebaluazioa eginen da, bai eta sare produktibo eta sozialean garatutako teknologia eta jakintzen aplikazio efektiboa ere.

3. Elkarte eta lankidetzaren arloko jarduketak eginen dira Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta beste entitate publiko eta pribatu nazional edo nazioarteko batzuen artean, xede izanik baliabideak partekatzea eta optimizatzea, jakintza transferentzia sendotzea, koordinazioari laguntzea, langileen garapen profesionala hobetzea eta lan kolaboratiboko ingurune berritzaileak sortzea esparru horretan.

4. Ahalbidetuko da ikertzaileek, teknikariek eta langile teknologikoek parte hartzea beren ikerketa-

ren emaitza gisa sortutako jakintzaren transferentzia prozesuan.

5. Sustatuko da jakintza transferentzian espezializatutako profilak dituzten profesionalak sartzea unibertsitateetan, zentro teknologikoetan, ikerketa zentroetan, osasun ikerketako institutuetan eta Osasun Departamentuaren zentroetan.

6. Arau jarduketak sustatuko dira eta burokraziaren inpaktua ebaluatuko da jakintzaren babesari laguntzeko, jakintza transferentzia sustatzeko eta ikertzaileen parte hartzeari bide emateko, bai oinarri teknologikoa duten enpresetako ikertzaileei, bai ikerketa zentro, zentro teknologiko, unibertsitate eta osasun ikerketako institutuetakoei.

7. Lan eginen da Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen jakintza transferentzia eta berrikuntzaren alorreko ekimenak areagotzeko, kalitatearen eta kantitatearen ikuspegitik, eta arreta berezia jarriko da Nafarroako Foru Komunitatearen garapen sozioekonomikorako lehentasunezko zat jotzen diren eta egiteko dauden erronka gisa finkatuta dauden proiektuetan.

8. Harreman etengabea, jarraitua eta arina ezarriko da Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta ikerketa eta berrikuntzaren alorreko enpresen artean, lurraldearen saretzeari laguntzeko eta jakintza transferentzia bizkortuko duten ekimenak eta proiektuak lantzeko.

9. Jakintza transferentziari lagunduko dion eta hura sustatuko duen finantzaketa publiko egokia eta egonkorra bermatuko da”.

Zioak: jakintza transferentzia I+G+b-aren funtsezko oinarria da, eta, beraz, iruditzen zaigu ongi garatuta agertu behar duela legearen kapitulu honetan, berariazko artikulua batean.

**12. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

23.1 artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

23.1 artikulua: “Lege honetan aurreikusitako esparruetan I+G+b sustatzeko, Nafarroako Gobernuak, aurrekontu orokorrak prestatzean, urtero handituko ditu I+G+b arloa sustatzeko neurrietara bideratutako zenbatekoak, harik eta 2030. urtean gutxienez ere urteko aurrekontuaren ehuneko 2,5 erabiliz arte. Horretarako, Zientzia, teknologia eta berrikuntza planaren aurrekontuaren parte diren zenbatekoak bakarrik zenbatuko dira”.

Zioak: Europan I+G+b arloan aitzindari den eskualdea izan nahi badugu, ezinbestekoa da arlo horretara bideratutako aurrekontua handitzea; hori horrela, 0,5 puntuko igoera proposatzen dugu 2030erako markatutako gutxieneko helbururako.

### 13. ZUZENKETA

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO** TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 23.3 artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

23.3 artikulua: “Nafarroako Gobernuko departamentu guztiek haien urteko aurrekontuaren ehuneko 2,5 bideratuko dute, gutxienez, I+G+b arloko inbertsiora, I+G+b-aren sustapen eta bultzadarekiko konpromiso eta inplikazioaren erakusgarri”.

Zioak: benetako apustua egin nahi bada Gobernuak I+G+b arloarekiko konpromisoa izan dezan, beharrezkoa iruditzen zaigu hura osatzen duten departamentu guztiek ere benetako konpromisoa izatea harekiko. Hori horrela, aurrekontu konpromiso orokorraz gain, departamentu bakoitzak ere konprometitu behar du lan horretan.

### 14. ZUZENKETA

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO** TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27.3 artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

27.3 artikulua: “Deialdi horien bidez, gizartearen behar eta erronkei erantzuten dieten eta Zientzia, teknologia eta berrikuntza planean ezarrita dauden eragileak, ikertzaileak, I+G+b arloko proiektuak edo I+G+b arloko azpiegiturak finantzatu dira, eta teknologia eta ikerketaren alorreko enpleguaren lan egonkortasuna eta hazkundera sustatuko dira horrela”.

Zioak: garrantzitsua iruditzen zaigu Administrazioetik ziurtatzea Nafarroako zentro teknologikoen jarraitutasuna eta bideragarritasuna, langileen lan egonkortasuna eta teknologia eta ikerketaren alorreko enpleguaren sustapena.

### 15. ZUZENKETA

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO** TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27.4 artikulua gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

27.4 artikulua: “Jakintza transferentzia sustatzeko, laguntzen bidez enpresen, zentro teknologikoen, ikerketa zentroyen, osasun ikerketako institutuen, Osasun Departamentuko zentroyen eta unibertsitateen arteko baterako ikerketa proiektuak sustatuko dira, haiei esparru guztietan egonkortasuna ziurtatzea ere helburu izanda”.

Zioak: jakintza transferentzia, I+G+b arloaren parte garrantzitsu den heinean. Garrantzitsua da zentro teknologikoen, ikerketa zentroyen, osasun ikerketako institutuen eta abarren egonkortasuna ziurtatzea finantzaketa publikoaren bidez.

### 16. ZUZENKETA

#### **GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN** **NAFARROA ETA NAFARROAKO** **ALDERDI SOZIALISTA** TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zuzenketa, xede duena kentzea Zientzia eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proiektuaren artikulua bakarraren hogeita bigarren apartatua.

### 17. ZUZENKETA

#### **GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN** **NAFARROA ETA NAFARROAKO** **ALDERDI SOZIALISTA** TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zuzenketa, xede duena hogeita lau bis apartatu berri bat gehitzea Zientzia eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proiektuaren artikulua bakarrari.

Proposatzen da hogeita lau bis apartatu berri bat gehitzea Zientzia eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proiektuaren artikulua bakarrari, honako testu honekin:

Hogeita lau bis. Aldatu egiten da 35. artikulua. Testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Gobernuari dagokio Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana taxutzea partehartze publikoko prozesu bat egin ondoren.

2. Behin plana landutakoan, elektronikoki argitaratuko da Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian ([www.navarra.es](http://www.navarra.es)), eta eta herritarrentzako kontsultagai egonen da. Era berean, Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko zaio plana, eta Parlamentuak haren jarraipena eginen du planean bertan ezarritako moduan”.

## 18. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa. I+G+b arloko inbertsio helburuak Nafarroan. Testu hau izanen du:

I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako BPGd-ari dagokionez: % 3,5.

Aldatu egiten da adierazlea 2030erako taulan:

Errenkada bat gehitzen zaio egungo taulari:

	2030
<b>I+G+b-ren sustapenerako portzentajea</b>	<b>% 2,5</b>

	2026	2027	2028	2029	2030
<b>I+G-b-rako inbertsioa BPGd-ari dagokionez</b>	<b>% 2,60</b>	<b>% 2,80</b>	<b>% 3,0</b>	<b>% 3,2</b>	<b>% 3,5</b>

Zioak: legearen helburuen artean, honako hau aipatzen da: “Europako I+G+b arloan Nafarroa lider bihurtzea”. Hori horrela, kontuan hartuta I+G+b arloan aitzindari diren Europako eskualdeek % 3,5etik gorako I+G+b inbertsioarekin itxi zutela 2024ko ekitaldia, iruditzen zaigu motz gelditzen dela 2030erako helburua % 3,0an uztea. Hori horrela, markatutako helburua puntu erdian handitzea proposatzen dugu.

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **11-25/PRO-00020. Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 173. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena**

#### **HITZAURREA**

Etxebizitza duin eta eskuragarria eskuratzeko aukerak arrisku larrian daude Nafarroan. Hamarkadatan zehar egiturazko arazo gisa eratzen joan dena, gaur egun benetako gizarte-larrialdi gisa azaleratzen da. Hiri eta lurralde askotan, muturreko egoeran gelditu dira familia asko higiezinen espekulazioaren, jabetzak esku gutxitan pilatzearen, etxebizitzak turismo-ostatu bihurtzearen eta etxebizitza publikoen falta kronikoaren konbinazioaren ondorioz. Herri xeheak, gazteek eta kolektibo zaurgarrituek jasaten dituzte egoerarik larrienak, hala nola bizitoki-prekaritatea eta etxebizitza duina eskuratzeko ezintasuna.

Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 2. artikulua honako hauek ezartzen ditu, besteak beste, Nafarroako administrazio publikoek etxebizitza arloan babestutako jarduketa gisa: lurzorua eskuratu,

sustatu eta urbanizatzea, bertan etxebizitza babestuak egiteko asmoz; lurzorua eskuratzeko, bertan errentaren gehieneko prezioa mugatua izanen duten alokairuko etxebizitzak sustatzeko asmoz; etxebizitza babestuak sustatzea, norberak erabilitzeko, saltzeko edo errentan emateko; etxebizitza edo eraikinak zaharberritzea eta horien obra osagarriak eta urbanizazio obrak, bai eta ondasun higiezinak erostea gero zaharberritzeko edo eraisteko ere, betiere ekipamenduetarako espazio libreak lortzeko asmoz egiten bada, eta etxebizitza babestuak edo Foru Komunitateko Administrazioaren bultzada duten jarduketa edo programetan erabilitako etxebizitzak eskuratu, errentan eman eta esleitzea.

Hain zuzen, etxebizitza da, beste ezer baino lehen, gizarte-ongizatearen zutabeetako bat. Azken urteotan prezioen bilakaerak igoarazi ditu, batetik, erosketa-prezioa, eta, bestetik, alokairuen kostua, prezioei euste aldera zenbait mailatan hartutako neurriak gorabehera. Horri alokairuaren merkatuaren portaera gehitzen zaio, non hautematen baita eskaintzaren eskasia, eskariaren igoera, prezioen aldaketa eta ordaintzeko erabili behar den errentaren ehunekoa, eta horrek merkatura sartzeko zailtasunak larriagotzen ditu, eta, ondorioz, etxebizitza duin bat izateko ezintasuna areagotzen du.

Udalekin egindako etxebizitza-merkatu tentsionatuko eremuetako neurri-planen barruan eta landa-eremuko etxebizitzaren arloko estrategiaren barruan, zenbait lan-ildo planteatu dira alokairu eskuragarriko etxebizitzak sustatzeko Nafarroako udalerrietan. Toki-entitateen eskumenen barruan dago hobariak ematea ondasun higiezinen gaineko zergan edo lurraren kontribuzioan, eta udalak eskumen hori baliatzearen alde agertu dira etxebizitza hutsak alokairu eskuragarriko merkaturantz mobilizatzeko helburuan laguntzeko.

Dauden etxebizitza hutsak mobilizatzea beharrezkoa da, eta horretarako zenbait neurri eta pizgarri abiatzen ari dira. Merkatu libreko etxebizitza

horiek mobilizatu ahal izateko, bi lan-ildo zehatz lan-tzen ari dira. Alde batetik, Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsa sustatzea, zenbait bidetatik, batez ere dirulaguntzen, bermeen eta zerga-neurrien bidez, etxebizitza-sistema publikoaren barruan eskuragarri dauden etxebizitzak areagotu ahal izateko. Eta, bestetik, babes ofizialeko etxebizitzaren prezio berak edo txikiagoak dituzten ohiko etxebizitza iraunkorretarako kontratuak formalizatzea sustatzea.

Testuinguru horretan, beharrezkotzat eta presazkotzat jotzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea, bai lurraren kontribuziorako bai eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarako ezarritako hobarietarako dagokienez, foru lege horretan hobariaren kausak tasatuta baitaude eta ez baitituzte barne hartzen helburu hori betetzeko behar diren kontzeptuak.

Udal-autonomia errespetatuz, udalek aipatutako udal-zergekin lotutako zenbait hobari ezartzeko aukera arautzen da. Asmoa da udal bakoitzak finkatzea, berariaz hala arautua badago dagokion ordenantza fiskalean, 170 bis) artikuluan aipatutako obretatik zein izaten ahal diren hobariak aplikatzearen xede. Udalerri bakoitzak finkatzen ahalko du artikulua horretan jasotzen diren hobarietako zein (denak edo horietakoren bat) aplikatzen ahalko diren udal-mugartean.

Zenbait hobari jasotzen dira zuzenean etxebizitzarekin lotuta dauden tokiko bi zergetan: lurraren kontribuzioan eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan. Lehenik eta behin, lurraren kontribuzioari dagokionez, beste hiru apartatu gehitzen zaizkio 140. artikuluari, halako moduz non hobari berriak ezartzen ahal diren kasu hauetan: Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsaren bidez alokatuta dauden ondasun higiezinetan; ohiko etxebizitza iraunkor gisa alokatuta dauden ondasun higiezinetan, baldin eta errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako prezio berean edo txikiagoan alokatuta badaude, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7.3 artikuluan ezarritako kalifikazioaren arabera, eta, azkenik, elkarte edo kooperatiben eraikuntza- eta sustapen-jardueraren xede diren erabilera-lagapeneko ondasun higiezinetan, betiere higiezin horiek bazkideen ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzen badira.

Bigarrenik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez, zuzenean etxebizitzekin lotuta dagoen horri, hobari berriak batez ere zuzenduta daude alokairura bideratutako etxebizitzak eraikitzeko obren proiektuak gauzatzea babestera, halako moduz non zerga hori % 50 edo % 30 murrizteak ahalbidetuko baitu etxebizitza horiek eraikitzeko prezioa murriztea, modu mugatuan bada

ere. Beste hobari bat ere ezartzen da elkarteek edo kooperatibek erabilera-lagapenean sustatutako etxebizitza edo ostatuen obretarako, bai eta udal-katalogoak babestutako eraikuntzetan egindako birgaitze-lanekin zerikusia dutenetarako ere.

Une honetan abian dauden edo obrak hasiak dituzten proiektuak egoten ahal direnez eta aldaketa honetan araututako hobariaren onuradun izaten ahal direnez, kontuan hartuta udalek ahalmena izanen dutela hobariok eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean txertatzea onesteko, atzeraeraginezko izaerarekin aplikatzeko ahalmena gaitzen da, baina aipatutako udal-ordenantza onartzen denetik atzerako urtebeteko mugarekin.

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

Aurrerantzean testu hau izanen dute Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako artikulua hauek:

**Ba.** Hiru apartatu berri eransten zaizkio 140. artikuluari. Eduki hau izanen dute:

"6. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria arautzen ahalko dute Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsaren bidez errentan dauden ondasun higiezinentzat, alokairuak irauten duen bitartean.

7. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria arautzen ahalko dute ohiko etxebizitza iraunkor gisa alokatuta dauden ondasun higiezinentzat, baldin eta errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako prezio berean edo txikiagoan alokatuta badaude, Nafarroan Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7.3 artikuluan ezarritako kalifikazioaren arabera.

8. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria arautzen ahalko dute elkarte edo kooperatiben eraikuntza- eta sustapen-jardueraren xede diren erabilera-lagapeneko ondasun higiezinentzat, betiere higiezin horiek bazkideen ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzen badira.

**Bi.** Aldatu egiten da 170 bis artikulua, eta testu hau izanen du:

"170 bis artikulua. Aukerako hobariak.

1. Ordenantza fiskalek zergaren kuotaren gaineko hobari hauek arautzen ahalko dituzte:

a) % 50erainoko hobaria, alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetara bakarrik zuzendutako eraikuntza, instalazio edo obretarako.

b) % 25erainoko hobaria, neurri batean alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako diren eraikuntza, instalazio edo obretarako, baldin eta guztizko kopuruaren erdia, gutxienez, babes ofizialekoa baldin bada.

c) % 50erainoko hobaria, elkartek edo kooperatibek erabilera-lagapenean sustatutako etxebizitza edo ostatuen eraikuntza, instalazio edo obretarako.

d) Zergaren kuotaren % 90erainoko hobaria, eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak txertatzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.

e) % 50erainoko hobaria, udal-katalogoak babestutako eraikuntzetan etxebizitza babestuak egiteko eraikuntza, instalazio edo birgaitze-lanetarako.

e) % 30erainoko hobaria, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan eta esku-hartze publikoko planen arloetan txertatutako eraikuntzetan etxebizitza babestuak egiteko eraikuntza, instalazio edo birgaitze-lanetarako.

2. Aurreko apartatuan aipatutako hobarietako bat baino gehiago eskatzen diren kasuetan, hobaririk handiena soilik aplikatuko zaio onuradun den subjektu pasiboari.

3. Hobari bakoitzaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalez arautuko dira. Hobari horietako bakoitzari atzeraeraginezko izaera ezartzen ahalko zaio, baina atzeraeragin hori ezin izanen da urtebetetik gorakoa izan foru lege honek indarra hartzen duenetik zenbatzen hasita”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-26/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita osorik bete dezan Nafarroako Gardentasunaren Kon- tseiluaren AR 144/2025 Akordioa**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita osorik bete dezan Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren AR 144/2025 Akordioa.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta jarraipena Lehendakaritza eta Berdintasuneko Batzordeak egin dezan.

Zioen azalpena

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak, 2025eko azaroaren 24ko bilkuran, 144/2025 AR Akordioa onetsi zuen, zeinaren bidez osorik onartzen baita Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuari aurkeztutako erreklamazioa, Volvok eta Sunsundegui 2023ko urriaren 12an sinatutako kontratua eskuratzeko ukatzeagatik aurkeztua.

Akordioak honako hau ondorioztatzen du argi eta garbi:

– Departamentuak kontratua emateari uko egitea ez dago juridikoki oinarrituta, kasuko alderdiek edo enpresek ez dutelako egiaztatu egiazko kalte ebaluagarriak.

– Eskatutako informazioa ezin da enpresa-sekretutzat hartu oso-osorik, zati jakin batzuk bakarrik izan baitezake babestu beharrekoak.

– Parlamentariak informazioa eskatzeko duten eskubidea Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua jasotzen du, eta hori da kasu horretan gailendu behar dena.

– Kontseiluak departamentuari agintzen dio erreklamazioa egin duen parlamentariari kontratu osoa eskuratzeko ahalbidetu behar zaiola, ukitutako enpresek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko legezko bi hilabeteko epea igaro ondoren.

Parlamentuan, 2026ko urtarrilaren 29an, kontroleko osoko bilkuran, kontseilariak iragarri zuen departamentuak erabaki hori errekurritzeko asmoa duela. Baieztapen horrek zalantza sortzen du Nafarroan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzen duen organoak hartutako administrazio-ebazpen irmo bat egiaz betetzeari buruz.

AR 144/2025 Akordioak berak gogorarazten duenez, entregatzeko agintzen den kontratuak dimentsio publiko nabarmena du, haren arabera antolatu baitira diru publikoarekin finantzaturako eragiketak, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriak eta Parlamentuaren kontrolpean dauden erabakiak.

Horregatik guztiagatik, eta gardentasun instituzionalaren printzipioa, parlamentarien oinarriko eskubidea eta Legebiltzar honi kontuak behar bezala ematea defendatzeko, mozio hau aurkezten da:

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Gardentasun Kontseiluaren 144/2025 AR Akordioa osorik bete dezan, parlamentari erreklamatzailerari Volvo eta Sunsundeguien artean sinatutako kontratu osorako sarbidea emanaz, organo horrek ezarritako baldintzetan eta aurreikusitako legezko epeak amaitu ondoren.

2. Administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jar edo susta ez dezan AR 144/2025 Akordioaren aurka, Konstituzioaren 23.2 artikuluan aitortutako oinarritzko eskubidea egikaritzeari eragiten dion prozedura bat justifikaziorik gabe luzatzea saihestuz.

3. Nafarroako Gobernuak gardentasunarekin, parlamentu-kontrolarekin eta funts publikoen erabilera arduratsuekin duen konpromisoa berrets eta berma dezan, bereziki Foru Komunitatearentzat garrantzi estrategikoa duten proiektuetan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-26/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita datu-tratamenduko zentroen inpaktuari buruzko analisi integrala egin dezan (ekonomikoa, laborala, energetikoa, hidrikoa nahiz ingurumenaren gainekoa), enpleguari eta lurralde-garapenari egiten dioten ekarpen errealaren gaineko ebaluazio konparatua barne**

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita datu-tratamenduko zentroen inpaktuari buruzko analisi integrala egin dezan (ekonomikoa, laborala, energetikoa, hidrikoa nahiz ingurumenaren gainekoa), enpleguari eta lurralde-garapenari egiten dioten ekarpen errealaren gaineko ebaluazio konparatua barne.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen

denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Lehendakari-tza eta Berdintasun Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Azken urteotan, azkar ari dira ugaritzen Datuak Prozesatzeko Zentroak (DPZ) ezartzeari lotutako proiektuak, ekonomia digitalaren hazkundeak, hodeiko konputazioak eta, berrikiago, adimen artifizialari lotutako teknologien garapenak bultzatuta.

Fenomeno hori, askotan, aukera estrategiko gisa aurkezten ari da lurraldeentzat, inbertsioa erakartzeari eta enplegua sortzeari dagokienez. Hala ere, nazioartean eta estatuan metatutako esperientziak erakusten du DPZk ezartzeak galdera garrantzitsuak planteatzen dituela, ebaluazio publiko zorrotza eta plangintza arduratsua eskatzen dutenak.

Lehenik eta behin, zentro horiek zuzeneko eta zeharkako enpleguan duten eragina oso mugatua da, lanpostuen sorrera eraikuntza-fase zehatzetan kontzentratzen baita eta nabarmen murrizten baita ohiko jarduera hasi ondoren.

Bigarrenik, DPZ horiek baliabide asko kontsumitzen dituzte, bereziki energia elektrikoa eta ura, bai ekipoen funtzionamendurako, bai hozte-sistemarako. Kontsumo intentsibo horrek lehendik dauden energia- eta ur-azpiegiturak tenka ditzake eta lehentasunezko beste erabilera batzuekin talka egin, klima-larrialdiak eta estres hidrikoko agertoki gero eta ohikoagoek markatutako testuinguruan.

Era berean, proiektu horiek duten ingurumen- eta lurralde-inpaktuak –lurzoruaren okupazioa, horri lotutako karbono-aztarna, hondar-beroa sortzea eta azpiegitura espezifikoezko mendekotasuna– balorazio integrala exijitzen du, lurralde- eta klima-plangintzarekiko jasangarritasun-, eraginkortasun- eta koherentzia-irizpideak txertatuko dituena.

Azken batean, Datuak Prozesatzeko Zentroek eskatzen duten natura-, energia- eta lurzoru-baliabide eta -azpiegitura kantitatea lehia zuzenean sartzeko da ekoizpen-sarearen beharrekin, eta azken horrek bai sortzen du enplegu egonkorra eta kalitatezkoa, eta erabilera sozialarekin, eta,

aldi berean, jasangarritasunari buruzko zalantzak planteatzen ditu.

Horregatik guztiagatik honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Datuak Prozesatzeko Zentroen inpaktuari buruzko analisi integrala egin dezan (ekonomikoa, laborala, energetikoa, hidrikoa nahiz ingurumenaren gainekoa), enpleguari eta lurralde-garapenari egiten dioten ekarpen errealearen gaineko ebaluazio konparatua barne.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du garapen teknologiko eta industrialeko eredu bat bultzatzea dezan, erdigunean jarriz jasangarritasuna, energia-subiranotasuna, lurralde-oreka eta inbertsioen itzulkin soziala, bermatuz interes orokorra nagusituko dela epe laburreko inbertsioak erakartzeko estrategien gainetik.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

## **11-26/MOC-00023. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Ameriketako Estatu Batuetako arduradun politikoaren adierazpenak, eskurik ez sartzearen printzipioa urratzen dutenak, eta berretsi egiten baitu nazioarteko zuzenbidea, arauetan oinarritutako nazioarteko ordena eta herrien burujabetza errespetatuz egin behar dela Groenlandiaren estatus politikoari eragiten dion planteamendu oro**

### *IRATI JIMÉNEZ ARAGÓN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irati Jiménez Aragón andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Ameriketako Estatu Batuetako arduradun politikoen adierazpenak, eskurik ez sartzearen printzipioa urratzen dutenak, eta berretsi egiten baitu nazioarteko zuzenbidea, arauetan oinarritutako nazioarteko ordena eta herrien burujabetza errespetatuz egin behar dela Groenlandiaren estatus politikoari eragiten dion planteamendu oro.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Irati Jiménez Aragónnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatzeko, bozkatzeko eta jarraipena egiteko.

### Zioen azalpena

Azken hilabeteetan, eta bereziki Venezuelan egindako legez kanpoko esku-hartzearen ondoren, Amerikako Estatu Batuek gero eta adierazpen publiko gehiago egin dituzte Groenlandiari buruz, eta horrek kezka handia sortu du nazioarteko komunitateko sektore askotan. Adierazpen horiek ez dira modu isolatuan gertatu; aitzitik, Estatu Batuetako kanpo-politikaren bilakaera zabalago batean kokatzen dira, nazioarteko zuzenbidea, multilateralismoa eta herrien eta estatuen arteko harremanak arautzen dituzten oinarriko printzipioak esplizituki zalan-tzan jartzea ezaugarri duena.

Groenlandiaren gaineko kontrola hartzeko aukera behin eta berriz aipatzeak, presio politiko, ekonomiko edo are militarreko mekanismoen erabilera baztertu gabe, menderatze-logika bat sartzen du, Nazio Batuen Gutunarekin eta herrien autodeterminazio-printzipioarekin bateraezina dena. Horrelako planteamenduek nazioarteko zuzenbide garaikideak gainditu nahi duen ikuspegi inperial eta neokolonialaren berezko praktikak gogorarazten dituzte.

Groenlandia nortasun propioa, erakunde demokratiko legitimoak eta etorkizuna askatasunez erabakitzeko gaitasun politikoa dituen herria da. Ez da transakzio-objektu bat, ezta kanpoko potentzien borondateak menderatzen ahal duen lurralde bat ere. Bere estatus politikoa buruzko edozein erabaki Groenlandiako herriari bakarrik dagokio, inolako esku-sartzerik eta presiorik gabe.

Agertoki horren aurrean, egoerak agerian uzten du nazioarteko komunitateak, oro har, erantzun argi, irmo eta koordinatuak antolatu behar dituela, nazioarteko zuzenbidearekiko errespetuan eta herrien eta estatuen arteko harremanak arautzen dituzten funtsezko printzipioen defentsan oinarrituta, arauetan oinarritutako nazioarteko ordenaren aurkako diskurtsoak edo praktikak normalizatzea saihesteko.

Bakearekin eta giza eskubideen defentsarekin konprometitutako ikuspegi batetik, erakunde publikoek argi eta garbi posizionatzeko erantzukizuna

dute nazioarteko legeria nahiz burujabetzaren eta esku-sartzerik ezaren printzipioak urratzeko edozein ahaleginen aurrean, baita derrigortze, anexo edo babes behartuko praktiken legitimazioaren aurrean ere.

Horregatik guztiatik, Parlamentu honek beharrezkotzat jotzen du Groenlandiako herriarekiko elkartasuna adieraztea, bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko duen eskubidea erabat errespetatzen duela berrestea eta Ameriketako Estatu Batuek eta nazioarteko komunitate osoak nazioarteko zuzenbidearen arabera jardutearen garrantzia azpimarratzea, mehatxuan, presioan edo inposizioan oinarritutako edozein ikuspegi alde batera utzita.

Horregatik guztiatik, Nafarroako Parlamentuak:

1. Errefusatu egiten ditu Ameriketako Estatu Batuetako arduradun politikoen adierazpenak, eskurik ez sartzearen printzipioa urratzen dutenak, eta berretsi egiten du nazioarteko zuzenbidea, arauetan oinarritutako nazioarteko ordena eta herrien burujabetza errespetatuz egin behar dela Groenlandiaren estatus politikoa iragiten dion planteamendu oro.

2. Groenlandiako erakunde demokratikoei babesa ematen die, eta bere legitiimitatea eta bere herriaren interesak ordezkatzeko gaitasuna aitortzen die, bai barne-eremuan, bai nazioartean.

3. Groenlandiako herriak autodeterminaziorako duen eskubidea berresten du, bere estatus politiko edo instituzionalari buruzko edozein erabaki herri horri bakarrik dagokiola nabarmenduz, nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik.

4. Defendatzen du Groenlandiari eta haren estatusari, baliabide ekonomikoei, naturalei, defentsakoei edo beste edozeini buruz lortzen ahal den edozein akordio herrarren eta instituzioen adostasuna izan beharko duela.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Irati Jiménez Aragón

**11-25/MOC-00159. Erabakia, zeinaren bidez gobernu zentrala premiatzen baita Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 4. artikulua (plangintza elektrikoa) alda dezan, lurraldearen araberrako sailkapena elementu objektiboa –eta erabakigarria– izan dadin egin beharreko plangintzetan**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez gobernu zentrala premiatzen baita Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 4. artikulua (plangintza elektrikoa) alda dezan, lurraldearen araberrako sailkapena elementu objektiboa –eta erabakigarria– izan dadin egin beharreko plangintzetan. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak gobernu zentrala premiatzen du Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 4. artikulua (plangintza elektrikoa) alda dezan, lurraldearen ara-

berako sailkapena elementu objektiboa –eta erabakigarria– izan dadin egin beharreko plangintzetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du 4. artikuluko horren aldaketan elementu objektibagarri gisa sartzeko:

– Industriak autonomietako BPGan duen pisu portzentuala.

– Industria intentsiboak autonomia bakoitzeko industria osoan duen pisu portzentuala.

– Energia-ekoizpen berriztagarriak autonomia bakoitzeko energiaren azken kontsumo gordinan duen pisu portzentuala".

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00014. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariekin adostutako gutxienerako aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariekin adostutako gutxienerako aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du Nafarroako GGKEen Koordinakundearen ordezkariekin adostutako gutxienerako aurrekontu-esparru bat jaso dadin Garapenerako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean".

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00015. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 5ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du izapideak has ditzan gidabaimena eman, izapidetu eta kudeatzearen arloko eskumena eskualdatzeko (trafiko-azterketak barne), eta, horrenbestez, aztertzaileak eskualdatzeko. Eskualdatze horri eraginkortasun osoa bermatzeko behar diren giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak erantsi behar zaizkio.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, bitartean eta berehala, behar diren neurriak har ditzan trafikoko aztertzaileen Nafarroako plantilla indartzeko, zerbitzuaren eta herritarren benetako beharretara egokitutako jardunek aztertzaile-kopurua bermatuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, eskumena eskualdatzen den bitartean, itxaron-zerrenden bilakaeraren etengabe jarraipena egiteko batzorde bat egin dezan, Nafarroako Autoeskolen Elkarte Probintzialarekin (APANA) eta Estatuko Gobernuarekin koordinatuta, hartutako neurrien eragina ebaluatzeko eta, hala badagokio, jarduketa berriak proposatzeko, Nafarroako herritarren beharrei erantzun egokia eman ahal izateko".

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00016. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Eliza Katolikoaren immatrikulazioak ahalbidetu zituen estatu-araudia baliogabetu dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Eliza Katolikoaren immatrikulazioak ahalbidetu zituen estatu-araudia baliogabetu dezan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gobernua premiatzen du lege bat susta dezan Hipoteka Legearen 206. artikulua deuseztasuna deklaratzeko Espainiako Konstituzioa indarrean jarri zenetik, bai eta, Eliza Katolikoarentzat bakarrik, hari jarraikiz xedatu zen 1947ko Hipo-

teka Erregelamenduaren 304. artikulua eta horiekin bat datorren beste edozein manurena ere, Eliza katolikoak ondasunak immatrikulatzea ahalbidetu baitzuten, eliza-ziurtagiri administratiboaren bidez.

2. Diputatuen Kongresua premiatzen du Konstituzioaren aurkako araudi horren babesean egindako immatrikulazioen erabateko deuseztasuna deklaratzeko beharrezkoak diren lege-erreformak onar ditzan.

3. Espainiako Gobernuari eskatzen dio Estatuko prozedura bat sor dezala bidegabe immatrikulatutako ondasunak berrikusteko, ikertzeko eta, hala badagokio, berreskuratzeke, autonomia-erkidegoen

eta toki-erakundeen parte-hartzearekin, eta, hala badagokio, egoera leheneratzea edo kalte-galerak konpontzea.

4. Eliza Katolikoak 1946tik gaur egun arte immatrikulatutako ondasunen zerrenda zabaltzeko, arazteko eta haren publizitate osoa egiteko eta erregistroan behar bezala identifikatzeko eskatzen du.

5. Nafarroan bidegabeki immatrikulatutako ondasunak berrikusten, ikertzen eta, hala badagokio, berreskuratzen egiten ari den lana kontuan hartuta, Gorte Nagusiak eta Espainiako Gobernua premia-

tzen ditu gainerako administrazioekin eta gizarte zibilarekin lan egin dezaten eliza katolikoak Estatu osoan bidegabeki immatrikulatutako ondasunak berreskuratzeko.

6. Mozio hau Espainiako Gobernuari, Gorte Nagusiei, Udalerrien eta Kontzejuen Federazioari eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraztea”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00018. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat babesten baitu pentsioen balioa handitze aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzen dezaten**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat babesten baitu pentsioen balioa handitze aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzen dezaten. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Erabat babesten du pentsioen balioa handitze aldera Espainiako Gobernuak egindako proposamena, hori ezinbestekoa baita pentsiodunek erosahalmena mantentzen dezaten.

2. Berretsi egiten du pentsioen sistema publikoarekin duen konpromisoa, justizia sozialaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren adierazpen gisa.

3. Arbuiatu egiten du pentsioen sistema publikoa eta gure herrialdeko pentsiodunen eskubide konstituzionalak pribatizatze eta/edo ahultze eskuinen edozein ahalegin.

4. Elkartasuna eta babesa adierazten die pertsona zaurgarrienei, eta konpromisoa adierazten du bizitza duina izateko baldintzak hobetzeko.

5. Espainiako Gobernua eta Diputatuen Kongresua premiatzen ditu Konstituzioaren erreforma susta dezaten, pentsioei gaur egun ez duten konstituzio-blindajea emateko. Erreforma horrek berriaz debekatu beharko luke edozein gobernuak Pentsioen Sistema Publikoa ukitu, murriztu edo pribatizatu ahal izatea, osorik edo zati batean, eta konstituzio-betebehar gisa jaso beharko luke pentsio publikoen benetako erosahalmenari eustea.

6. Nafarroako Parlamentuak mozio hau helaraziko die Espainiako Gobernuari, Diputatuen Kongresuari, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Espainia osoko pentsiodunen elkartei”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita etxegabetasunari erantzuteko politiken jarraipena egiteko  
koordinazio-esparru egonkor bat sor dezan***OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Javier Arza Porrás jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita etxegabetasunari erantzuteko politiken jarraipena egiteko koordinazio-esparru egonkor bat sor dezan. Mozioa 2026eko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-26/MOC-00013. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita talentua erakarri eta atxikitze plan integral bat sustatu  
dezan***OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita talentua erakarri eta atxikitze plan integral bat sustatu dezan. Mozioa 2026ko otsailaren 3ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-26/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Gardentasunaren Atarian hilero ezagutaraz ditzan Foruzain- goak Nafarroan atxilotutakoen kopuruari eta jatorriari buruzko datuak**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gardentasunaren Atarian hilero ezagutaraz ditzan Foruzaingoak Nafarroan atxilotutakoen kopuruari eta jatorriari buruzko datuak. Mozioa 2026eko otsailaren 3ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-26/MOC-00008. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osa- sun Departamentua premiatzen baita “Diagnostiko konplexuak dauz- katen familiei laguntza eta aholku integrala emateko figura” sor dezan**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2026ko otsailaren 6an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen baita “Diagnostiko konplexuak dauzkaten familiei laguntza eta aholku integrala emateko figura” sor dezan. Erabakia eragin zuen mozioa Javier García Jiménez jaunak aurkeztu zuen, eta 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du:

1. "Diagnostiko konplexuak dituzten familiei laguntza eta aholkularitza integrala emateko figura" sor dezan. Erreferentziazko figura teknikoa izanen

da, irisgarria eta zentralizatua, kasuen orientazio-, koordinazio- eta jarraipen-funtzioak dituen, sistema anitzeko premiak (osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua) dituzten diagnostiko konplexuei aurre egin behar dieten familientzat.

2. Leihatila bakarra sor dezan, familiarentzako harremanetarako gune bakarra eta laguntza-ibilbide argia eskainiz.

3. Kasuak kudeatuko dituen profesional baten figura sortzeko aukera azter dezan. Profesional horrek, Dravet-en sindromea edo beste gaixotasun arraro batzuk dituzten pertsonak eta haien familiak artatzeaz gain, beste osasun departamentu batzuekin koordinatu eta kudeatuko ditu gaixotasun horietatik erator daitezkeen premiak".

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-26/PES-00030. Galdera, Osasunbidean naziokoak ez diren pertsonen egindako esku-hartze medikoei edo ebakuntzei buruzkoa***JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Osasunbidean naziokoak ez diren pertsonen egindako esku-hartze medikoei edo ebakuntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialen argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gobernuak ba al du ziurtasunik Nafarroako Osasun Zerbitzuan ebakuntza medikoak edo kirurgikoak egin izanaz naziokoak ez diren pertsonen, noiz eta bizi diren herrialdeetan errenta eta ondare nahikoak badituzte?

Ba al dago egiaztapen-mekanismoak, Foru Ogasunarekin lankidetzan, iruzurrezko egoera posible horiek detektatzeko eta mozteko?

Halakorik balego, zertan dautza prozedura horiek eta zenbat aldiz jarri dira praktikan?

Zeintzuk izan dira emaitzak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## 11-26/PES-00031. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zerk eragin zuen Martzillako behaketa- eta harrera-zentrori gutxienez ere 112ko anbulantzia bat, suhiltzaile-kamioi bat eta Foruzaingoaren ibilgailua bat joan izana otsailaren 2an arratsaldeko azken orduan?

– Zenbat adingabe zeuden zentro horretan 2025eko abenduaren 2an, 2026ko urtarrilaren 2an eta 2026ko otsailaren 2an?

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-26/PES-00032. Galdera, Miteco-k 2030erako plangintza elektrikoaren zirriborroa argitaratu ondoren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin izandako hartu-emanari buruzkoa

*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Miteco-k 2030erako plangintza elektrikoaren zirriborroa argitaratu ondoren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin izandako hartu-emanari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

MITECOren 2030erako plangintza elektrikoaren zirriborroa argitaratu baita:

– Zer harreman izan dira Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren artean?

– Zer pertsonak izan dituzte harreman horiek erakunde bakoitzaren aldetik?

– Zenbat bilera egin ditu Nafarroako Gobernuak ministerioarekin?

- Zer egunetan egin dira?
- Nork parte hartu du bilera horietan?

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

---

## **11-26/PES-00033. Galdera, etxebizitza-ikuskaritzan plaza berriak sortzeari buruzkoa**

### *MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, etxebizitza-ikuskaritzan plaza berriak sortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

EH Bilduk eta Nafarroako Gobernuak 2026rako sinatutako aurrekontu-akordioan, «Departamentuak konpromisoa hartu du babes ofizialeko etxebizitzaren ikuskapen jarduera handitzeko, ezarritako erabilerrarako erabiltzen direla ziurtatzeko eta, laguntza publikoen programen bidez, alokairuaren prezioa igotzea dakarren gehiegizko erabilera saihesteko. Sei hilean behin egin beharko da publiko ikuskapen horien emaitza. Horretarako, lanpostu berriak sortuko dira plantilla organikoan, I. kapituluko aurrekontuaren arabera».

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Zenbat plaza sortzea aurreikusten du Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren arloko ikuskapen-jarduera hori handitzeko?

Zer plaza-mota sortzea aurreikusten du?

Zer denbora-aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak plaza horiek sortzeko?

Zer urrats edo izapide egin dira orain arte konpromiso hori betetzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## 11-26/PES-00034. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kirurgiarako robot bat lizitatzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kirurgiarako robot bat lizitatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

O-NOZek zergatik ez du oraindik lizitatu kirurgiarako robota, eta noiz lizitatzeko asmoa du?

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-26/PES-00035. Galdera, Lanbide Heziketako praktikei buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Lanbide Heziketako praktikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroa-

ko Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunari, idatziz erantzun diezaien:

– Zer irizpide teknikoren arabera erabakitzen du departamentuak bigarren kurtsoko praktikak lehenestea lehenbiziko kurtsoko praktiken aldean?

– Departamentuak aurreikusten al du neurririk hartzea lehenbiziko kurtsoko ikasleak beren prestakuntzari dagozkion praktikak egin gabe gera ez daitezen?

– Departamentuak nola bermatuko du ikasleek ikasketak behar den moduan eta epean amaituko dituztela, lehenbiziko kurtsuan egin gabeko praktikak bigarren kurtsuan metatu behar badituzte?

– Departamentuak aurreikusten al du ikastetxeek behar dituzten baliabideak jartzea, aldaketa horrek praktikak egitean sortzen dituen premiei erantzun ahal izateko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## 11-26/PES-00036. Galdera, Nafarroako Gobernuak TEDER-Tierra Estella Desarrollo Rural elkarteari emandako funts publikoei buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak TEDER-Tierra Estella Desarrollo Rural elkarteari emandako funts publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer dirulaguntza, laguntza, hitzarmen, enkargu, ekarpen ekonomiko edo funts publikoen transferentzia jaso ditu, izaera juridikoa edozein dela ere, Tierra Estella Desarrollo Rural elkarteak (TEDER), Nafarroako Gobernuaren, haren departamentuen, erakunde autonomoen, sozietate publikoen edo

mendeko entitateen aldetik, 2024ko eta 2025eko ekitaldietan?

Eskatzen dut erantzuna zehazteko, gutxienez, emandako laguntza edo dirulaguntza bakoitzari buruzko informazio honekin:

1. Laguntza eman duen departamentua, organismoa edo entitatea.

2. Aurrekontu-ekitaldia eta emate-data.

3. Emandako zenbatekoa eta, kasua bada, azkenean ordaindutako zenbatekoa.

4. Aurrekontu-programa eta finantzatzeko erabiliko den partida zehatza.

5. Dirulaguntzaren edo laguntzaren xedea eta helburua.

6. Emateko prozedura (norgehiagoka, zuzenean emakida, hitzarmen izenduna edo beste).

7. Emakida babesten duen araua, ebazpena edo erabakia.

8. Justifikazio-egoera (justifikatua, egiteke, errekerimenduekin, itzulketekin edo erregularizazioekin).

9. Funtsen aplikazio egokiari buruzko kontrolik, jarraipen-txostenik, fiskalizaziorik edo egiaztapenik dagoen ala ez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-26/PES-00037. Galdera, Corellako Alhama BHIko ikasleei eskainitako ereduari buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Corellako Alhama BHIko ikasleei eskainitako ereduari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera hauei erantzun diezaien.

Corellako herritar batzuek salatu IES Alhama de Corella ikastetxean, DBHn, ikasleek orain arte ez dutela A ereduari hautatzerik izan. Erreferentziak:

<https://iesalhama.educacion.navarra.es/web1/nuestro-instituto/oferta-educativa/>

<https://docs.google.com/document/d/1td3tm89KJIVHYfM1SFebF0c6VnA1S8x4lhnBltJNPA4/edit?pli=1&tab=t.0>

IES ALHAMA - PREVISIÓN DE MATRICULACIÓN PARA 1º ESO - CURSO ACADÉMICO 2025-26 Matriculación – IES Alhama de Corella

– Egia al da orain arte ez dela A ereduaren eskaintzarik egon ikastetxe horretan? Zergatik?

– Nola bermatuko du Hezkuntza Departamentuak, 2026-2027 ikasturteari dagokionez, A ereduari buruzko informazioa eta eskaintza bermatuko direla?

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-26/PES-00038. Galdera, Bidean-en anbulantziei buruzkoa

### CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Bidean-en anbulantziei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zergatik aldatu behar da BIDEANen 110 anbulantzietako 51 anbulantziaren karrozeria?

Zergatik ez zen hori aurreikusitako erosi zirenean?

Nork erabaki zuen egoera horretan erostea?

Zergatik ez da anbulantzia guztietan aldatu behar?

Nola eragin dio zerbitzuari anbulantzia horietako akatsak?

Lana noiz aurreikusten da amaituta egonen dela?

Karrozerien aldaketa egiten den bitartean zer eragin izanen du zerbitzuan?

Zein da karrozerien aldaketa horren kostu ekonomikoa?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-26/PES-00039. Galdera, Baztan-Bidasoan Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzeri buruzkoa**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Baztan-Bidasoan Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzeri buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da Baztan-Bidasoan Eskualdeko Lanbide Heziketako zentroa eraikitzekeo prozesua?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **11-26/PES-00040. Galdera, Egitekoa den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazte aldera zerbitzuak indartzeari buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Egitekoa den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazte aldera zerbitzuak indartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zehazki nola indartu nahi ditu bere zerbitzuak heltzeaz den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazteko? Aurreikusitako ekintzei buruzko informazio zehatza eta kuantifikatua eskatzen dizuegu.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

**11-26/PES-00041. Galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren aurrerapenari eta planak Artistaren Estatutuaren garapenarekin duen loturari buruzkoa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren aurrerapenari eta planak Artistaren Estatutuaren garapenarekin duen loturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilari Rebeca Esnaola andreak, idatziz erantzun diezaion:

Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentua kultura-sektorea profesionalizatzeko estrategia lantzen ari da, Nafarroako Kulturaren 2024-2028ko Plan Estrategikoan aurreikusia. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dizugu: zertan dira strategiaren aurrerapena eta planak Artistaren Estatutuaren garapenarekin duen lotura?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

